




Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo




Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

“GAZTE ETORKINAK EUSKARARA HURRERATU” EGITASMOA – 2017



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

AURKIBIDEA

I.- SARRERA / AURREKARIAK:

1.1.- ESTATISTIKAK.

1.2.- BUSTURIALDEKO INMIGRAZIO PLANA – GURE EKARPENAK.

2.- HELBURUAK

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU

3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO EKINTZA PLANA

3.2.- ERREFORTZURAKO IKASTARO BEREZIAK

3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2017” AZPIEGITASMOA

3.4.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK

3.5.- BALIABIDEAK

3.6.- KRONOGRAMA


4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

5.- AURREKONTUA

- I. **ERANSKINA:** Ahize-rekin 2016an sinaturiko konpromisoa, 2017rako onartuko denaren oinarria.
- II. **ERANSKINA:** “GAZTERREN 2015-2016ko balorazioa eta 2016-2017rako proposamena”.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

1.- SARRERA / AURREKARIAK

Egitasmoaren lehenengo pausuak 2006rako eratzerakoan eskuetan genituen estatistikei erreparatuz, ondo argi agertzen zitzaigun gure eskualdean, Euskal Herri osoan gertatu bezala, etorkinen pilaketa azken lau/bost urteetako fenomeno dela.

Etorkinak, guztira, 1.700 bat 2016ko erroldan (biztanleriaren %10) eta euren adina aztertuz gero, 0-39 urte bitartekoen portzentajea % 72,30 dela ateratzen zaigu eta horietatik honako datuak:

- 0-17 urte bitartekoena % 27,83a
- 18-39 urte bitartekoena % 55a


Beraz, eskoletara bideratzekoak heren bat eta erdiak lanean aritzeko adinekoak. Ikasteko gaitasuna oso-osoan mantentzen diren adin-tarteak izanik, hizkuntza berri batez jabetzeko duten trebetasunari eutsi behar diogula uste izan dugu egitasmo honi ekiterakoan. Hargatik, etorkin helduei dagokienean euskara ikasteko motibazioa landu behar dugu eta euren pertzeptzioa lantzea, euskara beharrezko (lanerako, integratzeko, jolasteko, lagunak egiteko) dutela konturazteko. Atal honetan txertatuta ditugu Gazte etorkinei begirako Ekintza Plana (GuGazte) eta Gazterren egitasmoa.

Ikasle etorkinak direla-eta, ez dugu esango bidea errazagoa denik, baina gure udalerrian D eredu nagusi dugun irakaskuntzan murgilduta, euskararako bidea berezkoa izan daitekeela esaten ausartzen gara. Dena dela, horretarako baliabide falta nabaria dute zentroetan eta ikasle etorkinei irakaskuntzan eta gizartean integratzeko laguntza eskaini beharrean aurkitu izan gara. Horretarako, Udal Eskola Kontseiluarekin eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekin elkarlanean, abian jarri ziren 2006an egitasmo honi lotutako jarduera berezi batzuk. Irakaskuntzari begirako atal honetan dihardugu lantzen errefortzuko ikastaroena iraungo urte askotan eta 2012an aintzat hartutako beste bati ekin zitzaion 2014an ere: Eusliderrak egitasmoa (zentro bateko DBH-ko etapa osoan eragiteko hizkuntza ohiturak eta aurreiritziak lantzeko esperientzia pilotoa).

Eusliderrak proiektua dela-eta esan behar dugu bi urteko ibilbidea ondoren Mertzede ikastetxeak berak hartuko zuela egitasmoaren garapenerako ardura, AHIZEren aholkularitzapean. Beraz, 2016an Eusliderrak metodologia beste esparru batean erabili izan da, kirolean hain zuzen (Gernika Futbol Taldeko gaztetxoaren taldeetan) emaitza oso onak izanik.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo




Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

1.1.- ESTATISTIKAK


IKASLEGO ATZERRITARRA BUSTURIALDEAN / ALUMNADO EXTRANJERO EN BUSTURIALDEA

IKASTETXEAK	IKASLEGOa 2009/2010	ETORKINAK 2009/2010	IKASLEGOA 2010/2011	ETORKINAK 2010/2011	IKASLEGOA 2011/2012	ETORKINAK 2011/2012	IKASLEGOA 2012/2013	ETORKINAK 2012/2013
CEP ALLENDE	695	43 (6%)	748	56 (7,4%)	747	60 (8%)	743	72 (9,6%)
CEP BARRUTIA	245	3 (1,2%)	276	15 (5,4%)	290	20 (6,8%)	285	16 (5,6%)
IES BARRUTIALDE	238	13 (5,4%)	234	7 (2,9%)	238	13 (5,5%)	268	12 (4,4%)
IES GERNIKA	735	19 (2,5%)	752	18 (2,3%)	772	26 (3,3%)	760	22 (2,8%)
LA MERCED	296	105(35,8%)	303	120 (39%)	301	141 (46,8%)	294	126 (42,7%)
SAN FIDEL	678	45 (6,6%)	693	39 (5,6%)	719	46 (6,3%)	733	55 (7,5%)
SEBER ALTUBE	605	17 (2,8%)	616	7 (1,1%)	655	18 (2,7%)	676	14 (2%)
MONTORRE	45	4 (8,8%)	52	4 (7,6%)	48	10 (20%)	51	7 (13,7%)
MUNDAKA	137	14 (10%)	146	5 (3,4%)	155	7 (4,5%)	139	3 (2,1%)
UCELAY (Busturia)	103	3 (2,9%)	124	2 (1,6%)	123	6 (4,8%)	120	3 (2,5%)
URRETXINDORRA	67	4 (5,9%)	84	5 (5%)	100	8 (8%)	92	8 (8,6%)
PUBLIKOAK	2.265	103(4,5%)	2.416	112 (4,6%)	2.473	150 (6%)	2.458	143 (5,8%)
KONTZERTATUAK	1.579	167 (10%)	1.612	166 (9,9%)	1.675	205 (12,2%)	1.703	195 (11,4%)
OROKORRA/TOTAL	3.844	270 (7%)	4.028	278 (6,9%)	4.148	355 (8,5%)	4.161	338 (8,1%)

Fuente/Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Bizkaia)/ Departamento de Educación, Universidades e Investigación (Bizkaia).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

%57,6 ZENTRO KONTZERTATUETAN TA %42,4 PUBLIKOETAN / EL 57,6% EN CENTROS CONCERTADOS Y EL 42,4% EN PÚBLICOS


Gernika-Lumoko Hasierako Lanbide Prestakuntzako Ikastetxea (Ile-apainketa eta Zurgintza): 33 ikasle (19 atzerritarrak, %57)

Ikasle etorkinak etapaka Busturialdean


IKASLEGO ATZERRITARRA MAILAREN ARABERA/ ALUMNADO EXTRANJERO POR ETAPAS (2011/2012)

	2008/2009	2009/2010	2010/2011	2011/2012	2012/2013	ALDAKETAK
HAUR HEZKUN/INFANTIL	70	64	74	115	104	-11
LEHEN HEZKUNTZA/PRIMARIA	113	118	128	156	161	+5
DBH/SECUNDARIA	71	78	67	76	63	-13
BACHILLERATO	3	3	3	3	5	+2
LANBIDE/FP (Erdi maila/medio)				1	3	+2
LANBIDE/FP (Goiko maila/super)	4	7	5	4	2	-2
OROKORRAK	261	270	278	355	338	-17

Gernika-Lumoko zentroetan 317 ikasle etorkin (matricula guztien %8,26).



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

Gure eskualdeari eta udalerriari dagokionean, hurrengoak azpimarratu behar:

- **Berezitasuna.-** Beste udalerri batzuetan sare publikoak jasaten du ikasle etorkinen pilaketa eta Gernika-Lumon, oster, zentro kontzertatueta (%57,9) dago pilaketa.
- **Arriskua.-** Mertzede ikastetxean aurreko urteetan gertaturiko pilaketa harritzekoa izanda, Udal Eskola Kontseiluak orain dela bi urte hausnarketa egin zuen eta, etorkinen integraziorako noraino kaltegarri izan zitekeen kontuan izanda, halako getolakoak ekiditzeko etorkinak matrikulatzeko orduan zentro guztien arteko oreka bilatu behar zela ebatzi zen. Horretarako, konpromisoa hartu zuten guztiek eta matrikulazioaren bilakaera kontrolatzeko urtean bi batzar egitea ere, Berritzeguneko teknikariak bar. Gorako joera moteldu egin da azken hiru urteetan, 2007-2008koarekin alderatuz.
- **Indargunea.-** Etorkinak matrikulatzen diren erduei erreparatuz, 324tik 284 (%87,65) ikasle D erduan daude; gainerako 40 ikasle etorkinak DBH-ko B erduan ari dira Mertzede ikastetxean.
- Azken ikasturtean eskualdeko zentroetan **matrikulatuta dauden ikasle atzerritarren kopuruak behera egin du**, joan den ikasturtean baino 17 ikasle gutxiago. Murrizketa hau etorkinen helduera moteldu delako dela uste dugu. 2003/2004 ikasturtetik etengabe hazi den ikasle atzerritarra ikasturte honetan hasi da jaisten lehen aldiz.
- Busturialdeko ikasle atzerritarren %57,6 ikastetxe kontzertatueta dago (bereziki Mertzeden) eta %42,4 publikoetan. Egoera hau gure eskualdeko berezitasuna da, Euskal Autonomi Erkidegoko datuen arabera, ikasle atzerritarren %75 sare publikoan baitago matrikulatuta. Hala eta guztiz ere, gure eskualdean egoera hau orekatuz doa: 2008/2009 ikasturtean ikasle atzerritarren %66 zentro kontzertatueta ziren eta gaur egun %57,6 dugu.

ATZERRIKO BIZTANLERIA BUSTURIALDEKO MANKOMUNITATEAN (2014)

1. Atzerriko biztanleriaren eboluzioa, 2014-2015.

2014ko URTARRILAREN 1ean				2015eko URTARRILAREN 1ean			
	Biztanleria orokorra	Atzerritarrek	%				Aldaketa
ARRATZU	405	15	3,7%	405	14	3,4%	-1
BUSTURIA	1.707	38	2,2%	1.698	43	2,5%	+5
EA	872	38	4,3%	859	41	4,7%	+3
ELANTXOBE	390	2	0,5%	385	4	1%	+2
EREÑO*	251	17	6,7%	257	15	5,8%	-2
ERRIGOITI	522	17	3,2%	508	15	2,9%	-2
FORUA	962	57	5,9%	956	46	4,8%	-11
ARTEAGA	878	47	5,3%	873	40	4,5%	-7
GERNIKA	16.834	1.579	9,3%	16.811	1.580	9,4%	+1
IBARRANGELU	641	9	1,4%	644	8	1,2%	-1
KORTEZUBI	461	21	4,5%	469	18	3,8%	-3
MENDATA	381	8	2,1%	385	10	2,5%	+2
MORGA	418	16	3,8%	425	16	3,7%	-
MUNDAKA	1.906	81	4,2%	1.906	79	4,1%	-2
MURUETA	312	6	1,9%	314	5	1,5%	-1
MUXIKA	1.453	40	2,7%	1.460	36	2,4%	-4
NABARNIZ	240	8	3,3%	238	10	4,2%	+2
SUKARRIETA	357	11	3%	374	16	4,2%	+5
GUZTIRA	28.990	2.010	6,9%	28.967	1.996	6,8%	-14

Iturria: Biztanleen Udal-errola.

- 1) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten 18 udalerrietan **beste herrialde batzuetako 1.996 pertsona daude erroldatuta, biztanle guztien %6,8 alegia**. Portzentaje hori Bizkai osoan (2014an %5,9) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (2014an %6,4) daudena baino altuagoa da, baina Estatuan dagoenarekin konpartuz gero (2014an %10,7) baxuagoa da.
- 2) **2014tik 2015era bitartean erroldatuta dauden atzerritarren kopurua jaitsi da pixka bat, 2.010 lagun izatetik 1.996 izatera**, hori da **14 lagun gutxiago**. Jaitsiera 2013 eta 2104 urteen artean izandakoa baino askozaz apalagoa da. Aipatutako aldian, etorkinen kopurua % 7,5 gutxitu zen (163 lagun gutxiago). Oro har, eskualdetik alde egin duten pertsonen dagozkie erregistratutako baja gehienak, beste udalerrri batera joateko edo jatorrizko herrialdera itzultzeko alde egin duten pertsonenak, hain zuzen ere; baina, horrez gain, **kontuan hartu behar da espainiar nazionalitatea gero eta etorkin gehiagok jasotzen dutela, batez ere Latinoamerikatik iritsitakoak, eta, horrenbestez, erroldetan ez direla atzerritar gisa ageri**.



- 3) Mankomunitateko hamazortzi herrietan bizi diren **49 atzerritarrek espainar nazionalitatea jaso zuten 2014an**. Haien artean **nazionalitaterik ugariena boliviarra** da. **2013an 89** izan ziren.
- 4) Atzerriko biztanleriaren **%40 Europako Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorritakoa da (799 lagun)** eta **Europako Batasunetik etorritako 1.197 biztanleetatik %87,8 errumaniarrak dira**. Honakoak dira nazionalitaterik ugariena: **errumaniarra (1.052 lagun)**, **argentinarra (77)**, **marokoa (63)**, **moldaviarra (57)**, **boliviarra (55)**, **brasildarra (54)**, **sahararra (53)** eta **portugaldarra (52)**.
- 5) **Gehien handitu diren taldeak Errumaniakoa (43 lagun gehiago)** eta **Pakistaneakoa (12 gehiago)**. **Gehien murriztu direnak portugaldarra (15 lagun gutxiago)** eta **senegaldarra (12 gutxiago)** izan dira.
- 6) **Emakumeak** eskualdeko etorkin guztien **%50** dira.
- 7) Atzerriko biztanleen **%48 18-39 urte bitartekoa da** eta **%18 adin txikikoa**.
- 8) **Gernika-Lumoko udalerrian Mankomunitatean bizi diren atzerritarren % 78 biltzen dira (1.580 lagun)**. Udalerri honen **biztanleriaren %9,4** beste herrialde batzuetatik dator. Azken hamabi hilabeteotan, erroldatutako etorkinen kopuruak ez du aldaketarik izan (lagun bat gutxiago); 2013 eta 2014 urteetan, berriz, % 7ko jaitsiera izan zuen (126 lagun gutxiago). **Gehien handitu diren** komunitateak **errumaniarra (51 lagun gehiago)** eta **pakistaniarra (9 gehiago)** izan dira. **Gehien murriztu den taldea brasildarra da (13 lagun gutxiago)**.

1.2.- INMIGRAZIO PLANAREKIKO UZTARKETA

2005ean eratu zen I. Inmigrazio Plana, 2008an bigarrena eta 2013-2016 eperako hirugarrena. Hiruretan hartu zuen parte Euskara Zerbitzuak eztabaidarako foroetan eta bere ekarpenak ere egin zituen; ekarpen horiek onartuak edo ez izatea baino gure helburu nagusia EBPNrekiko uztarketa eta loturak sendotzea izan da beti eta uste dugu lortu dugula.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateak eratu Inmigrazio Planean aintzat hartutako ekintzez gain, uztarketa horren frogagarri dira hurrengo koordinazio eta elkarlan gunek:

- Inmigrazio teknikariaren parte hartzea Udal Eskola Kontseiluan eta AHIZEK garatzen duen gazte etorkinei begirako Ekintza Planaren jarraipenean.
- Mankomunitateko Gizarte Hezitzaileen Eskuartze Taldearen jarduna AHIZEren Ekintza Planarekin duen lotura eta alde bien arteko elkarlana.
- Eratu den Jarraipen Batzordean Inmigrazio Teknikariaren parte hartzea.
- Mankomunitateak urtero gauzatzen duen Gazterren egitasmoa, 9-15 urte bitarteko gaztetxoei begirakoa (eskolan eta familia giroan arazoak dituzten gaztetxoei zuzendua eta parte hartzen dutenen %70 gazte etorkinak dira).

2. HELBURUAK

Indarrean dagoen ESEPeren arabera moldatutako 2017ko Kudeaketa Planean aintzat hartutako ekintza eta azpiekintzei jarraiki eratu eta gauzatuko da honako egitasmoa:

Helburu estrategikoa: Euskararen transmisioa / ondorengoetaratzea.

Esparrua:

2. Irakaskuntza

2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

2.6.1. Kanpotik etorritako nerabeengan arreta berezia jartzea eta haientzako programa bereziak garatzea

- 2.6.1.1.- DBHko ikasle etorkinei ikastaro bereziak eskaini, euskara ikasi eta sendotzeko

Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera



7. Aisia eta kirola

7.7. Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea (Toki erakundeak)

7.7.1. Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak sortzea

- 7.7.1.1.- Etorri berrien integrazioa bideratutako aisialdi programak bideratu (gazte etorkinak euskarara urreratzeko egitasmoa)

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU

Premiazko egoerak bultzatuta, gazte etorkinen esparruan eragiteko 2006an abian jarri genuen ikasle etorkinen errefortzurako egitasmoa, presaka behar bada, euskaltegiekin eta irakaskuntza zentroekin elkarlanean. Gero etorri zen Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateko Kale Hezitzaileekin ekiteko gogoia eta aukera ezin hobia: Gazterren egitasmoa.

2008an, gauzak apalago eta patxadaz hartzearen, hurrengo urteetarako ekinbideak argitu beharrean aurkitu izan ginenez, beste azpiegitasmo bat gauzatzeari ekin genion: Gazte etorkinei buruzko diagnostikoa burutzea 2009an. I. Ekintza Plana garatu zen 2010ean eta zapigarrenari ekin zaio 2016an.

2011n aurreikusi gabeko egitasmo bati eutsi genion, sarrera-idatzian aipatua: Eusliderrak egitasmoa (zentro bateko DBH-ko etapa osoan eragiteko hizkuntza ohiturak eta aurreiritziak lantzeko esperientzia pilotoa). Eusliderrak proiektua dela-eta esan behar dugu hiru urteko ibilbidea ondoren Mertzede ikastetxeak berak hartuko duela egitasmoaren garapenerako ardura, AHIZEn aholkularitzapean eta trebatze ikastaro bat eskainiko zaiela irakasleei horretarako. Honakoa “GUGAZTE” proiektuaren adar bihurtu genuen 2015ean.

2016an baina, Mertzede ikastetxeak bidea bere kabuz eta AHIZEn aholkularitzapean egiteko gaitasuna zuela ikusirik, Eusliderrak metodologiarekin beste esparru bat landu izan da: Kirol arloa, Gernika Futbol Taldeko gaztetxoek bi talde; 2017rako ere kirol arloari eustea pentsatu da, baina beste kirol mota bateko elkartean ekinda.



3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO “EKINTZA PLANA” eta “EUSLIDERRAK”

Abian ditugun azpiegitasmoei hobeto ekiteko eta ekintza-esparru berrietara jotzeko, hau da, esparru formalean ez ezik esparru ez-formalerako tratamendua zehaztearren, gazte etorkinen munduari buruz 2008an egindako diagnostikoa oinarri, Ekintza Plan bat garatzen da urtero. Hamabi urtetik hogeita lau urtera arteko gazte etorkinen unibertsoa langai, 3 azpitaldetan banatuta:

- A 12tik 15era artekoak
- B 16tik 19ra artekoak
- C 20tik 24ra artekoak

Honakoa, AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitzarekin Udalak 2009an sinatu zuen hitzarmenaren jarraipena da eta 2017rako berriztatu egingo da hitzarmena Ekintza Planaren garapena helburu (ikus 1. eranskina)

Bestalde, Euskararen erabilpena areagotzea dela-eta, AHIZE enpresak proposamen bat aurkeztu zion Gernika-Lumoko Udalari 2011ko ekainean, “Eusliderrak” delako egitasmoa. Berau, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateak egindako ikerketetan oinarritua dugu, giza multzo berezietan aplikatu eta hizkuntza ohituretan eragiteko metodologia erabiliz.

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuak AHIZE enpresarekin hausnarketa egin ondoren, egokitzen jo zuen Berrizko Institutuan garatutako esperientzia pilotuan oinarritu eta Gernika-Lumon ere DBH mailan aplikatzea, Mertzede ikastetxeko DBH-ko 3. mailan hain zuzen. Hautaketaren arrazoiak: ikastetxe txikia, gela oso bat lantzeko aukera eta maila bakoitzeko gela bakarra, B ereduak eta ikasle etorkinen portzentajea ia %50koa zuena. Aurrekoak kontuan hartuta, egitasmoak eraginkortasun handia izan zezakeen erakunde osoan. Gainera, Mertzede ikastetxeko arduradunekin batzartu eta atseginez eutsi zioten aukera horri. Burutu zen, bada, lehenengo esperientzia hori eta hurrengo urteetan jarraipena izan du (2014an III. zikloa garatu zen).

Eusliderrak proiektua dela-eta esan behar dugu hiru urteko ibilbidea ondoren Mertzede ikastetxeak berak hartu beharko lukeela egitasmoaren garapenerako ardura, AHIZEren aholkularitzapean.

Hori horrela, GU-GAZTE egitasmoa eta EUSLIDERRAK egitasmoak uztartzea erabaki genuen 2016an, lehenengoa udalerrri mailan burutzekoa eta, bigarrena, gazte multzo berezi bati zuzendua (2016an Gernika Futbol Klubeko gaztetxoek bi taldetan erabili izan da metodologia hori). Bietan xede taldea 12-18 urte bitarteko gazteak dira, gaztetxo etorkinen integrazioa modu berezian lantzea helburu.



3.2.- ERREFORTZURAKO IKASTARO BEREZIAK

2007-2008 ikasturterako, Udal Eskola Kontseiluak 2007ko irailaren 20an egindako bileran hausnartutakoa oinarri hartu zen erabakia ekarri behar gogora: “DBH mailako gazte etorkinek euskara landu dezaten, errefortzua eskaintzea ikastaro bereziak eratuz”.

Ordutik hona, errepikatu egin da esperientzia urtero eta Udal Eskola Kontseiluak egiten dituen batzarretan egiten da iragan ikasturteko hausnarketa eta berrirako egokipena. Hona hemen 2016eko irailaren 21ekoa:

“Gernikako AEKko ordezkariak 2015-2016 ikasturteko taldeen balorazio orokorra egin du:

- *Bi talde izan dira*
 - *15 ikasle A1 (hasiera) mailan. Lau baja izan dira (3 gabonak inguruan eta beste bat aurrerago: futbola, partikularrak, ...). Balorazio positiboa egiten dute emaitzen arabera eta jarrera ere oso ona izan dela azpimarratu du.*
 - *Beste 11 B1 mailan (maila aurreratua). Guztiek bukatu dute ikastaroa, baina aipatu behar da bi ikaslek jarrera txarra izan dutela talde honetan, taldearen dinamikan horrek suposatzen duen kargarekin. Arazo hori baztertuta, emaitzak, orokorrean, oso onak.*

*Hausnarketa egin ondoren, **hauxe erabaki da:***

1).- Orain arteko eskemari eutsiko zaio (bi talde, A1 hasiera maila eta B1 hobekuntza maila).

2).- Zentroetako zerrendak jasotzeko epe muga: URRIAK 10. Ikasle bakoitzaren fitxa:

- *Izen-abizenak.*
- *Jatorria eta udalerrira noiz etorria.*
- *Ikasketa maila eta euskara maila (“0” edo “hobekuntza”)*
- *Kontakturako eta jarraipenerako telefono zenbaki bat.*

2).- Egunak, bi astean, aurkezpen egunean finkatuko dira. Ordutegia: arratsaldeko 5:00etatik 6:30era. Ikastaroaren ordu kopurua: 60 ordu.

3).- Ikastaroa Gernika Institutuan garatuko da (2011ko ekainaren 17ko bilkuran erabakitakoari jarraituz), ikasturte honetan eta hurrengoan. Beraz, hurrengo urteetarako ikastaroen lekua honako hurrenkeraren arabera izango da:

- *2016-2017/2017-2018 ikasturteetan: Gernika Institutua*
- *2018-2019/2019-2020 ikasturteetan: Seber Altube Ikastolan.*



- 2020-2021/2021-2022 ikasturteetan: *Mertzedek Ikastetxea.*
- 2022-2023/2023-2024 ikasturteetan: *San Fidel ikastolan.*

Beraz, 2007an finkaturiko ildoari jarraiki, hurrengo ikasturteetan ere bi ikastaro antolatu izan dira, bakoitzean bi talde izanik, oinarritzkoa edo zero maila (60 ordu) eta hasiera maila (60 ordu). Urtero egiten izan diren udako ikastaroak ezin izan dira burutu azken urteetan, aurrekontu murrizketa bitarteko.

3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2017”

Derrigorrezko jo genuen bere sasoian Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekiko zubiak eraiki eta elkarlanari eustea, eurak direlako etorkinekin lehenengo harremana dutenak eta eskaintzen zaizkien laguntza guztien arduradunak.

Beraz, kale hezitzaileen zerbitzuarekin elkarlanari ekitea adostu dugu, euren lanetan laguntzeko eta euskararen normalizazioari begira gure aholkularitza eta baliabideak eskaintzeko. Lan esparru interesgarria guretzat, tratatzen dituzten gazteak familia arazoak dituztenak izanik, eurentako erdiak etorkinak direlako. Integrazioa lantzeko hizkuntzarena lantzea behar-beharrezko jo dugu eta horregatik bideratu da diru laguntza berezi bat zerbitzu horrekin elkarlanean eratu den “Gazterren 2016-2017” egitasmoa aurrera ateratzeko (ikus II. Eranskinean horri buruzko balantzea).

“Gazterren 2017” azpiegitasmoaren xede taldea, 9-15 urte bitarteko gaztetxoei begirakoa izango da, gizarteratzeko arazoak (bai pertsonalak zein familiakoak bitarteko) dituztenentzat. Guztira 25 bat gaztek hartzen du parte eta horietatik erdiak, gutxi gora-behera, etorkinak izango dira.

Atal honetan aipamen berezia egin beharra dugu, egitasmo orokor honen baitan dauden azpi egitasmoen artean hezurmamitzen doan koordinazioa dela eta; Mankomunitateko Gizarte Hezitzaileen Eskuartze Taldearen jarduna AHIZEren Ekintza Planarekin duen lotura eta alde bien arteko elkarlana areagotzea dugu helburu 2017an.

3.4.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK

- Euskara Zerbitzua (ardura orokorrak):

- Egitasmoa eratu eta garapena koordinatzeko ardura nagusia.
- Batzarretarako deialdiak egin eta idazkaritza lanak bete.
- Plan Estrategiko berria oinarritutako 2017ko Kudeaketa Planean diru-baliabideak finkatu egitasmoa garatu ahal izateko.
- Azpi egitasmoen garapenari jarraipena egiteko ardura nagusia.



- **Udal Eskola Kontseilua (errefortzurako ikastaro bereziak):**
 - Partaide udalerriko irakaskuntza zentro guztiak.
 - Inplikaturiko gainerako eragile guztien bilgunea.
 - Bertan erabaki dira egitasmoa garatzeko orientabide nagusiak.
 - Jarraipenaren eta emaitzen berri emateko bilgunea.
- **Berritzegunea (errefortzurako ikastaro bereziak):**
 - Udal Eskola Kontseiluko partaide berezia.
 - Matrikulazioaren gora-beheretako arduraduna, egitasmoarekin zerikusia duen neurrian.
 - Bere ardurapean dagoen ikasle etorkinen inguruko “Mintegia” izango da egitasmoari buruzko metodologiaren oinarriak finkatzeko bilgunea (euskaltegiak barru).
- **AEK Euskaltegia (errefortzurako ikastaro bereziak):**
 - Euskara Zerbitzuarekin estu-estu ekitea diote egitasmoaren zehaztasunak lantzeko.
 - Parte hartzea Berritzeguneko Mintegian metodologiaren inguruko zalantzak argitzeko.
 - Euren ardura da ikasle etorkinei eskaini zaizkien ikastaroetako ekintza alternatiboak eta programazioaren zehaztapenak egitea, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean.
 - Programazioa behin finkatuz gero, Udal Eskola Kontseiluan aurkeztea, behin-betiko onarpena izatearren.
- **AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitza (Etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana” eta “Eusliderrak”-2017):**
 - Udalarekin 2009an sinatutako hitzarmena bitarteko, 2017koa egokituko da (I. eranskina).
 - AHIZE-ko teknikaria arduratuko azpiegitasmo horien koordinazio eta garapenaz.
- **Gizarte Zerbitzuetako mankomunitatea (Etorri berri gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana / Gazterren 2016-2017):**
 - Kale hezitzaileen zerbitzua bitarteko, etorkinekin aisialdia euskaraz lantzearen egitasmoa burutzeko egitasmoaren ardura izatea.
 - Inmigrazio Teknikariaren inplikazioa (Udal Eskola Kontseiluan eta Jarraipen Batzordean)

3.5.- BALIABIDEAK

- Giza baliabideak:

- Euskara Zerbitzuko lanak HNT Teknikariak beteko ditu.
- Berritzegunearen aldetik, matrikulazioaren jarraipenerako ardura duen Teknikaria eta Euskara Teknikaria (Berritzeguneak ikasle etorkinen ingurukoa aztertzeke daukan mintegia berak zuzenduko du).
- AEK Euskaltegiko zuzendariak (2), egitasmoa eratu eta jarraipenerako ardura izango du, eta irakasleak/dinamizatzaileak (2), programatutakoa garatzeko arduradunak.
- Gizarte zerbitzuetako mankomunitatekoak: Immigrazio Teknikaria eta 2 kale hezitzaile.
- AHIZE-AEK-k garatuko dituenak:
 - Ekintza plana koordinatu eta garatzeko teknikaria (astean 8 orduz arituko da). Koordinazio bilerak.
 - Ekintza planean aintzat hartuko da “Eusliderrak” proiektuaren garapenerako aholkularitza (bi hilabeteko iraupena): garapenaz arduratuko den teknikaria eta AHIZE aholkularitzako teknikaria (laguntza tekniko).

- Diru eta material baliabideak, Euskara Zerbitzuarenak:

- 2017ko Kudeaketa Planean aurreikusitako partida bereziak egitasmoa garatzeko (Ekintza planarena, errefortzurako ikastaroena, Gazterren egitasmoarena).
- Materialak eta lokalak lortzeko gestioak egiteko ardura izango du.



3.6.- KRONOGRAMA

Azpiegitasmoak	Urtean zeharreko garapena										
Ikastaro bereziak 2016-2017	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Batzarrak Esk. Konts. Eta euskaltegiak (jarraipena)											
Metodologia eta programazioa landu (Euskalt. / Berritzegunea)											
Ikastaldeak eratu											
Ikastaroak eman											
Gazterren 2016-2017	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Kale hezitzaileen taldeak dinamizatzea (asteroko ekintzak eta hamabosterik behingo irteera)											
Gazteak erakartzeko Ekintza Plana 2016-2017	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Koord / Antol / Hausn Ekintza plana / Euslitterak											
Tailerrak (antzerkia)											
Hitzaldiak / Foroak											
Jai ospakizunak											
Asteburuetako barnet											
Irteerak											
Berbalagun (talde pilotua)											
Inmigratio Plana eta Gazte Planarekiko uztark/ koordinazioa											
Matrikulazioaren jarraipena											
Euslitterak aholkularitza (Saski Baloi Elkartea)											

4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Gaztetxoei begirako Ekintza Planaren kasuan, xede taldea, gutxi gora-behera, 12-18 urte bitarteko 1.300 gaztetxo dira eta eurretatik 130 bat etorkinak.

Ekintza Planaren emaitzak neurtzeko adierazleak:

- Partaide kopurua xede taldearekiko.
- Finkaturiko eragile nagusien partaidetza.
- Partaideen artean euskara gaitasuna lortzen dutenen kopurua.

Ikastaroen azpiegitasmorako xede taldea 80 ikaslekoa da, DBHn matrikulatuta dauden ikasle etorkinak eta emaitzak baloratzeko adierazle nagusiak:

- Ikastaroetako partaide kopurua.
- Helburua lortu dutenen portzentajea.

“Gazterren 2016-2017” azpiegitasmoarekin lantzen den unibertsoa 9-15 urte bitarteko gaztetxoena da (tarte horretan sartzen diren gazte etorkinak barne, 90 gutxi gora-behera) eta, zehatzago, egitasmoaren xede taldea gizarteratzeko arazoak (bai pertsonalak zein familiakoak bitarteko) dituzten gazteena da. Beraz, xede taldea zenbatekoa den jakitea aldezturik ez da erraza eta errazagoa da unibertso osoa lantzea. Emaitzak neurtzeko adierazleak:

- Partaide kopurua.
- Lantaldeetan izandako baja kopurua.
- Lantaldetik kanpoan geratu direnak. gizarteratzeko beste bide bat aurkitu dutelako.

Azpiegitasmo honetan kokatzen dugu Eusliderrak-2017 egitasmoarekin loturiko aholkularitza; 2016an futbol elkarteko gaztetxoaren taldeetan erabili izan da metodologia; 2017an Saski baloi elkarteko taldeekin landuko da. Adierazlea: hasierako neurketa eta amaierako neurketaren arteko aldea.



5.- AURREKONTUA

KONTZEPTUAK	KOPURUAK
Errefortzurako ikastaro bereziak DBHko ikasle etorkinei:	6.000
“Gazterren 2017” azpi-egitasmoa, kale hezitzaileen zerbitzuak (dinamizazioa –bi begirale- eta ekintzak)	1.400
Gazte etorkinei begirako GU-GAZTE Ekintza Plana 2017 (Ahize-AEK)	6.500
Eusliderrak programa Mertzede ikastetxean garatzeko gastuak (Ahize-AEK)	2.700
GUZTIRA	16.600

Gernika-Lumon, 2017ko urtarrilean.

Marisa Aldamizetxebarria
Euskara Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria



I. ERANSKINA

**“AHIZE HIZKUNTZA AHOLKULARITZA”
ETA GERNIKA-LUMOKO UDALAREN
ARTEKO HITZARMENA**

**“GERNIKA-LUMOKO ETORRI BERRI
GAZTEAK EUSKAL MUNDURA
ERAKARTZEARREN 20...ko EKINTZA
PLANA GARATZEKO HITZARMENA**



Gernika-Lumoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko-ren-n eta Udal Idazkaria naizen Jon Goikoetxea Etxebarria Jaunaren aurrean.

BILDUTA

Batetik, Mertxe Mugika Balanzategi, adinekoa eta 78864768E NAN zenbakiduna, Euskaraz koop. E. izenean arituz (IFK: F 95222816).

Bestetik, JOSE MARIA GORROÑO ETXEBARRIA Jauna, adinekoa, Gernika-Lumoko Udaleko udal-batzarburua, 7/1985 Legearen 21.1.B) artikulua ezarritakoaren arabera udalaren izenean jarduten duenari.

ADIERAZTEN DUTE

I

Gernika-Lumoko Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa 2003ko apirilaren 30ean onartu zuen eta horren ildotik hamalau gizarte esparru lantzeari ekin dio azken urteotan. 2009-2012 eperako Plan Estrategiko berria ere eratu eta onartu du Gernika-Lumoko Udalbatzak 2008ko abenduaren 17ko Osoko Bilkuran, hurrengo helburu estrategiko nagusiekin lotuta:

- 1. helburu estrategikoa: euskara ondorengoetaratzea.
- 2. helburu estrategikoa: euskararen erabilpena.
- 3. helburu estrategikoa: euskara elikatzea.

II

Gernika-Lumoko Udalak euskalduntze-alfabetatze esparruan eragiteko Euskaraz koop. E-ren zerbitzua den Ahize Hizkuntza Aholkularitzarekin hitzarmena sinatu zuen 2008an, "Gernika-Lumoko etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko Plan Estrategikoa diseinatu eta abiatzeko" lemapean.

III

Plan Estrategikoa inplementatzeko eta aipatutako diagnostikoa oinarri, Gernika-Lumoko Udalak 2009 eta 2010eko Kudeaketa Planetan aintzat hartu zuen Ekintza Plan berezi bat garatzea eta 2015erako ere beste hainbeste aurreikusita dago:



Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.

Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera

7. Aisia eta kirola

7.7. Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea (Toki erakundeak)

7.7.1. Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak sortzea

- 7.7.1.1.- Etorri berrien integratzora bideratutako aisialdi programak bideratu (gazte etorkinak euskarara urreratzeko egitasmoa)

Hori horrela, 2014ko aurkeztu zuen Ahize Hizkuntza Aholkularitzak 2015erako Ekintza Plana.

IV

Arestikoak kontuan hartuta, Ahize Hizkuntza Aholkularitzak eta Gernika-Lumoko Udalak helburuetan bat eginda, elkarlanerako gogoia berretsi eta honako HITZARMENA sinatzen dute. Horretarako, finkatu egiten dituzte hurrengo

KLAUSULAK

Lehenena.- Ahize Hizkuntza Aholkularitzak konpromisoa hartu du “Gernika-Lumoko etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko 2017ko Ekintza Plana” eta “Eusliderrak” egitasmoa Saski Baloi elkarteak burutzeko, hitzarmenaren eranskinean agertu bezala. Horretarako, 12 urtetik 18 urtera arteko Gernika-Lumoko gaztetxoak kontuan hartuz, unibertso horretan adin horretako etorkin gazteak gizarteratzeko lanari ekingo dio bereziki.

Bigarrenena.- Aipatu Ekintza Plana eta Eusliderrak egitasmoa direla eta, Ahize Hizkuntza Aholkularitzak hurrengo lanak beteko ditu:

- Laguntza teknikoa eta metodologikoa emango dio Gernika-Lumoko Udalari kudeaketa plana diseinatu eta garatzeko.



- Proiektuetan parte hartuko duten eragile desberdinen (ikastetxeak, Gazteen Informaziorako bulegoa, Saski Baloi Elkartea, inmigraziorako teknikaria) koordinazio, antolaketa eta hausnarketa lanak, horretarako bileren dinamizazio eta dokumentazio lanak kudeatuko ditu.
- Hausnarketa-taldearen bilerak dinamizatu, eta behar diren koordinazio- eta komunikazio-lanak egin.
- Ekintza planaren baitako irteera, hitzaldi eta orotariko ekintzen antolaketa, koordinazioa eta dinamizazioa garatuko ditu.
- Proiektuaren hobekuntzari begira, inmigrazio, euskara eta gazte planetako Udal teknikariek koordinazioa landuko du.
- Halaber, udalerriko eskolekin harremana eta koordinazioa garatuko ditu ekintza plan koordinatua osatzeari begira, eta bereziki matrikulazioan jarraipen lanak egingo ditu.
- Prozesuaren emaitza diren txostenak idatzi.

Arestiko lanetarako honako giza baliabideak erabiliko ditu Ahize Hizkuntza Aholkularitzak:

- Ekintza Plana bideratuko duen teknikaria: teknikaria, astero orduz arituko da, orotara ordu.
- Euslitterak egitasmoa burutzeko ardura izango duen teknikaria..... Hiru hilabetez, astero orduz
- Proiektu koordinatzailea: teknikaria. Alde operatiboa eta udalarekiko koordinazio-lana bideratuko du.
- Proiektuaren jagolea: Gernikako AEK euskaltegiaren arduraduna. Proiektuaren ikusmira eta estrategikotasunaz arduratuko da.

Hirugarrena.- Ahize Hizkuntza Aholkularitzak, bigarren klausulan aipaturiko lanen jarraipenerako, hiru hilabeterik behingo txostena aurkeztuko dio Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuari, berau izango baita proiektuaren jarraipena eta zaintzaren ardura izango duena. Kronograma horrekin bat, koordinazio bilerak egingo dituzte hitzarmen sinatzaileek eta bertan hartuko dute parte proiektuaren koordinatzaileak, proiektua bideratuko duen teknikariak, proiektuaren jagoleak eta, Udalaren aldetik, Euskara zinegotziak eta Hizkuntza Normalizaziorako Teknikariak (HNT1).

Laugarrena.- Hitzarmen honi erantsita doan agiria, “Gazte etorkinak euskarara hurreratu-2017” egitasmoa hain zuzen, hitzarmen honetan aintzat hartutako konpromisoak gauzatzeko jarraibide nagusia izango da, bai egin beharreko lanak, lan-sistema, inplikatu beharreko eragileak eta koordinazio bideak zehazteko orduan.

Bosgarrena.- Gernika-Lumoko Udalak, hitzarmen honekiko hurrengo konpromisoak hartu ditu:

- 1.- Ekintza Plana burutzeko sortuko den koordinazio-gunean parte hartu.
- 2.- Proiektua gauzatzeko beharko diren azpiegitura eta gainerako baliabideak eskaintzea.
- 3.- 2017ko aurrekontuan 9.200 € bideratzea hitzarmen honen xede den egitasmoa burutzeko. Kopuru hori, bi zatitan banatuta dago:
 - 6.500 € (BEZ barru), GU-GAZTE programarako Ahize Hizkuntza Aholkularitzaren lanak eta dinamizazioa ordaintzeko erabili eta ordainketa hiru zatitan egingo da (%50a hitzarmena sinatu eta batera, beste %25a irailean eta, 2017ko abenduan gainerako %25a.
 - 2.700 €, Eusliderrak programa Saski Baloi elkarteko gaztetxoek taldeetan burutzeko; kopuru horren %50a egitasmoari ekingo zaion unean eta gainerako %50a egitasmoa burutu ostean.

Seigarrena.- Elkarlanerako Hitzarmen hau sinatu eta indarrean izango da urte beteko epean. Sinatzen duten alde biek adostuz gero, honako hitzarmena berretsi eta bere indar epea luzatu ahal izango dute dituen baldintza berdinekin edo eurretako batzuk egokituz.

Eta adostasunaren seinale, honako agiria sinatu dute ekitaldiko partaide guztiek, idazpuruan aipatutako leku eta datan.

ALKATEA,

EUSKARAZ KOOP. E
(Ahize hizkuntza aholkularitza).

Jose Maria Gorroño Etxebarrieta

Mertxe Mugika Balanzategi

EUSKARA ZINEGOTZIA

IDAZKARIA,

Marisa Aldemizetxebarria

Jon Goikoetxea Etxebarria



II. ERANSKINA

GAZTERREN 2015-2016ko balorazioa eta 2016-2017rako PROPOSAMENA



GIZARTE TREBETASUNAK LANTZEKO PROGRAMA

Gernika, 2015-2016

SARRERA

Jarraian, 2015-2016 ikasturtean Gizarte Trebetasunak lantzeko programan egindako ekintzen memoria aurkezten dugu. Programa Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko EIPSEko gizarte hezitzaileek zuzendu dute.

Programa honek Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saitetik diru-laguntza jaso du. Honi esker, lau hilabetez zehar Urtxintxako profesional baten laguntza eduki dugu, euskararen erabilera eta interkulturalitatea sustatzeko.

Aurten talde berri batekin hasi gara lanean; 2015eko azaroan hasi eta 2016ko uztailean amaitu dugu. Astrako lokaletan batu izan gara asteen behin (asteazkenetan), eta udalerriko baliabide komunitarioak ere erabili izan ditugu (Gaztelekua, Liburutegia, Kultur etxea...).

Martxotik ekainera arte, Urtxintxako kide bat izan dugu gurekin lanean. Monitore bat etorri da hilean birritan eta berak prestatutako ekintzak egin ditugu. Umeak oso pozik egon dira ekimen honekin eta Urtxintxaren parte hartzeak, umeen beharrei erantzun hobe emateko aukera eman digu hezitzaileei.

Programan zazpi umek hartu dute parte, eta hiruren familiek beste esku-hartze mota (esku-hartze familiarra, arreta psiko-soziala, psikomotritzitatea) eduki dute talde-programarekin batera.

ASISTENTZI, PARTEHARTZE ETA TALDE KOHESIO MAILA

Programa bi gizarte hezitzaileek zuzentzen dute, beraz, gehienez 10 umek parte hartu dezakete. Programa 4 neska-mutilekin hasi zen eta kurtsoa aurrera joan ahala, partaidetzak gorantza egin du. Guztira, 7 parte-hartzaile egon dira ikasturtean zehar. Apirilean mutil batek etortzeari utzi zion.

	GUZTIRA	BERTOKOAK	ETORKINAK
PARTAIDEAK	7	5	2
MUTILAK	6	4	2
NESKAK	1	1	0



Etorkinei dagokienez, ikasturte honetan, etorkin bi egon dira, bat Errumaniakoa izan da eta bestea Brasilekoa.

Adin-txikikoen asistentzia maila nahiko altua izan da. Hutsegite gehienak ez dira justifikatuak izan.

Ekintzekiko taldeak erakutsi duen parte hartze maila oso ona izan da orokorrean. Proposatutako jarduerak oso ondo hartu dituzte. Gustura etorri izan dira saioetara, eta erakutsi duten motibazio maila oso ona izan da.

PROGRAMAREN HELBURUAK

- **Gizarte harremanetan zailtasunak dituzten adin txikiko neska-mutil etorkinen harrera lana egitea eta parekoekin harremanetan jartzeko gunea ahalbidetzea.** Helburu nagusia da hau Komunikazio gaitasunak, enpatia, gatazken konponbidea eta sentimenduen adierazpena landu dira.
- **Autoestima indartu.** Autoestima indartzeko helburua duten hainbat dinamika aurrera eraman diren arren, programa guztian zehar zeharka landu den helburu garrantzitsuenetariko bat izan da hau. Programak, parte-hartzaileen beraien, eta taldekideen dohainak identifikatzea errazten baitu.
- **Etorkinen integrazioa erraztu eta programa beraien ekarpenekin aberastea.** Parte-hartzaileak euren artean ezagutzeko balio du eta bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu taldean.
- **Parte-hartzaileen gizarte trebetasunak bultzatu.** Kide gehienek dute arlo hau lantzeko beharrezana eta ondorioz helburu honi garrantzi berezia ematen diogu programan zehar.

SAIOEN EDUKIAK ETA METODOLOGIA

Programa autoestima, sentimenduak, interkulturalitatea, gatazken konponbidea eta gizarte trebetasunak lantzeko dinamiketan zentratu da. Programa asteen behin izan da, ordu eta erdiko iraupena du.

Taldea nahiko homogenea izan da, hau da, antzeko beharrak dituzten neska-mutilak izan dira parte-hartzaileak. Neska bakarra izan dela esan behar dugu.

Era ludikoan planteatzen direnez jarduerak, umeen jarrera positiboa da. Izan ere, mugimenduzkoak diren ekintzek, adierazteko eta komunikatzeko bideak erraztu dituzte eta talde dinamika izan da gehien erabili den metodologia.



Urtxintxako monitorearen laguntzaz, hainbat herrialdetako musika tresnak, jolasak, tailerrak, errezetak eta ipuinak ikusi ditugu, beraz, beste kulturetako gauza asko ezagutu ditugu.

Hemen agertzen dira kurtso honetan egindako ekintzak:

EGUNA	EKINTZA
1. 2015-11-04	LEHEN EGUNA, AURKEZPEN JOLASAK
2. 2015-11-11	JOLAS LIBREAK; MARRAZKI LIBREA; ARAUAK
3. 2015-11-18	EZAGUTZE JOLASAK; PLAY-MAYS
4. 2015-11-25	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA TAILERRA
5. 2015-12-02	PUXIKAK
6. 2015-12-16	GAZTELEKU
7. 2015-12-29	GABONETAKO ESKULANAK
8. 2016-01-13	JOLAS LIBREAK
9. 2016-01-20	ARAUA; JOLASAK
10. 2016-01-27	PLASTILINA
11. 2016-02-03	GAZTELEKU
12. 2016-02-10	"UNO" JOLASA
13. 2016-02-17	PIÑATA
14. 2016-03-02	JOLAS KOOPERATIBOAK
15. 2016-03-09	URTXINTXAKO MONITOREAREN AURKEZPENA
16. 2016-03-16	JOLASAK ETA ESKULANA (Gitarra). Urtxintxa.
17. 2016-04-06	ESKULANA (Txirula). Urtxintxa.
18. 2016-04-13	JOLAS KOOPERATIBOAK
19. 2016-04-20	ESKULANAK. Urtxintxa.
20. 2016-04-27	EMOZIOAK
21. 2016-05-04	ESKULANAK ETA JOLASAK. Urtxintxa.
22. 2016-05-11	JOLAS LIBREAK ETA "UNO".
23. 2016-05-18	ESKULANAK. Urtxintxa.
24. 2016-05-25	JOLASAK
25. 2016-06-01	PIÑATA. Urtxintxa.
26. 2016-06-08	SENTIPUINAK
27. 2016-06-15	SUKALDARITZA. Urtxintxa.
28. 2016-06-22	BUZTIN TAILERRA
29. 2016-06-29	URTXINTXAKO MONITOREAREN AGURRA

Aurten hiru txango egin ditugu; denak uztailean. Oso positibotzat jotzen dugu mota honetako ekintzak egitea, haurren eta bere familien funtzionamenduaren inguruko adierazle asko ikusten baitira. Aldi berean, eurentzat esperientzia berri eta bizigarriak izateko aukera ematen die.



Uztailean:

2016-07-06	KANOAK LAIDATIK
2015-07-13	BASONDO
2015-07-27	HEGALUZE – ITSASONTZIA. Gurasoekin

EBALUAZIOA

Orokorrean, giroa ona izan da eta umeek gustura parte hartu dute. Kurtsoan zehar landu diren ekintzak ugariak izan dira: jolas kooperatiboak, mahai jolasak, kanpo jolasak, ezagutzeko eta konfiantza lortzeko jolasak, emozioak lantzeko dinamikak, beste kultura batzuk ezagutzeko jolasak, marrazkiak... Gehien erabilitakoak jolasak eta eraikuntza dinamikak izan dira. Tailerretan egindakoak gero etxera eramanez ahal izan dute. Euskarari dagokionez, neska-mutilek ondo hitz egiten dute euskaraz, gaztelaniaz hitz egiteko ohitura duten arren.

Oso gustura egon gara Urtxintxako monitorearekin. Lan handiko dinamikak prestatu ditu eta aurrera eramateko gaitasuna ezin hobea izan da. Umeekiko harremana oso ona izan da.

Pasadan kurtsoan bezala, Astran programa egitea aukera oso ona izan delakoan gaude, espazioak ekintza gehiago egiteko aukera ematen digu. Era berean, familiek herriko beste baliabide bat ezagutzen dute.

Eskolak oso positibotzat jo du programa eta familiek programarekiko jarrera ona erakutsi dute. Gurasoekin harremanetan izan gara ikasturtean zehar seme-alaben eboluzioaren berri emateko.

Parte-hartzaileak ere, oso pozik egon dira eta asko gustatu zaie.

Gernika-Lumon, 2016ko abenduaren 9an

Gizarte-Hezkuntzako Esku-Hartze Taldea (GHET)

